

ICMA AWARDS 2016

**MUSIKA KLASIKOAREN
NAZIOARTEKO SARIEN
GALA-KONTZERTUA**

**CONCIERTO DE GALA
DE LOS PREMIOS
INTERNACIONALES DE
LA MÚSICA CLÁSICA**

**EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA
ORQUESTA SINFÓNICA DE EUSKADI**



**ARTISTA GONBIDATUAK
ARTISTAS INVITADOS**

Young Artist **PABLO FERRÁNDEZ**, Cello
Discovery Award **NIKOLAI SONG**, Flute
Artist of the Year **CHRISTIAN LINDBERG**, Trombone
Winner Contemporary Music **LUKASZ DLUGOSZ**, Flute
Lifetime Achievement **DAME FELICITY LOTT**, Soprano
Winner Baroque Instrumental **MICHALA PETRI**, Recorder
Winner Baroque Instrumental **MAHAN ESFAHANI**, Harpsichord
Special Award Palazetto Bru Zane **DAVID VIOLI**, Piano
Repr. Hamonia Mundi **JAVIER PERIANES**, Piano

ZUZENDARIA DIRECTOR JUN MÄRKL

APIRILAK 1 DE ABRIL

**AUDITORIOA
AUDITORIO**

KURSAAL

20:00

Eusko Jaurlaritzako Herri-Orkestra
Donostia / San Sebastián 2016



international
classical
music
awards



**ELKARRIZKETAK / CONVERSACIONES
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
DSS2016.EU**

ICMA AWARDS 2016

INTERNATIONAL CLASSICAL MUSIC AWARDS GALA

MUSIKA KLASIKOAREN NAZIOARTEKO SARIAK. GALA-KONTZERTUA

ICMA 2016 PREMIOS INTERNACIONALES DE LA MÚSICA. CONCIERTO DE GALA

Apirilaren 1ean, Kursaal Auditoriumean. 20:00etan.

Jun Märkl, zuzendaria

Bizitza Osoko Lorpenari Saria
Dame Felicity Lott, sopranoa

Urteko Artista
Christian Lindberg, tronboia

Urteko Artista Gaztea
Pablo Ferrández, biolontxelo

“Aurkikuntza” Saria
Nikolai Song, flauta

Musika Garaikidea
Lukasz Duglosz, flauta

Musika Barroko Instrumentala
Michala Petri, flauta ezta
Mahan Esfahani, klabezina

Epaimahaiaren Sari Berezia
David Violi, pianoa

Urteko Disko Etxeari Saria
Javier Perianes, pianoa (Harmonia Mundi disko etxearen ordezkaria)

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Sarrerak:
22€ eta 10€
salgai www.kutxabank.es, www.euskadikoorkestra.eus
eta Kursaal Elkarguneko leihatilan.

MUSIKA KLASIKOAREN NAZIOARTEKO SARIEN GALA-KONTZERTUA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Donostia 2016 ICMA Awards sarien aurtengo edizioa prestatzen ari dira.

Apirilaren 1ean izango da, Kursaal Auditoriumean.

ICMA Sariak musika klasikoaren nazioarteko sariak ditugu, musika klasikoaren alorrean “Oscar” sarien baliokideak, nolabait esateko. Estatuan estreinakoz egingo den sari-banaketa horri esker Donostia eta, bide batez, Euskadi musika klasikoaren erdigune bilakatuko dira Europa mailan. Ekitaldi hau Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaaren “Elkarrizketak” ildoaren baitan kokatzen da, hau da, Hiriburutzaren balioekin lotutako proiektuak tokiko kultur-programatzaileekin elkarlanean gauzatzeko sortutako lan-ildoaren baitan.

Urtero nazioarte mailako artistei sari bereziak banatzen zaizkie. Aurten esaterako Bizitza Osoko Lorpenari Saria **Dame Felicity Lott** sopranoak jasoko du, Urteko Artistari Saria **Christian Lindberg** konpositore, tronboi-jotzaile eta zuzendariak eta **Pablo Ferrández** biolontxelistak, aldiz, Urteko Artista Gazteari Saria. “Aurkikuntza” Saria, estreinakoz emango zaiona 12 eta 18 urte bitarteko musikari bati, **Nikolai Song** flautistak jasoko du; CD eta DVD ekoizpen onenak ere saritzen dira 15 arlotan (musika barrokoa, abesbatzarako musika, musika sinfonikoa eta abar).

Apirilaren 1ean, sari-banaketa ekitaldia + Gala-Kontzertua. Apirilaren 1ean, ostiralean, ICMA Awards-eko epaimahaikideak, sarituak eta hainbat gonbidatu bilduko dira mugatua izango den sari-banaketa ekitaldian. Horren ostean, **Gala-Kontzertua** izango da, publikoari irekia. Kontzertuan saritu guztiek esku hartuko dute, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera, Orkestraren titular Jun Märkl maisuaren zuzendaritzapean. Gauzak horrela, musika “klasiko” izena hartzen duen horrek bere baitan biltzen dituen askotariko musika-moldeek bat egingo dute emanaldian, adierazpide bakoitzaren erakusle diren artista nabarmenen eskutik. Aukera aparta izango da, beraz. Gala-Kontzertua Kursaal Auditoriumean izango da, arratsaldeko 20:00etan. **Sarrerak salgai** daude jada ohiko salmenta-bideetan (22€/10€).

ICMA Sarien epaimahaia 13 herrialde ezberdinetako musika kritikoez osatzen dute, musika klasikoaren alorrean erreferentziazkoak diren honako 17 komunikabide paperezko zein digitalen ordezkariak: Andante (Turkia), Classic Radio eta Rondo Classic (Finlandia), Crescendo (Belgika), Fono Forum (Alemania), Gramofon (Hungaria), IMZ (Austria), Kultura (Errusia), MDR-Figaro (Alemania), Musica (Italia), Musik & Theater (Suitza), Orpheus Radio (Errusia), Opera (Erresuma Batua), Pizzicato eta Radio 100,7 (Luxemburgo), ResMusica (Frantzia) eta Scherzo (Espainia).

Lehenbiziko sari banaketa ekitaldia Tampere-n (Finlandia) izan zen 2011. urtean eta Tampereko Orkestra Filarmonikoa antolatu zuen. Hurrengo Nantes-en izan zen, Orchestre National des Pays de la Loire orkestrak antolatua. 2013. urtean, berriz, Milanen izan zen ekitaldia, Orchestre Sinfonica di Milano Giuseppe Verdi-k sustatuta. 2014an Varsovian izan berri da, Ludwig van Beethoven Aste Santuko Jaialdiaren baitan eta 2015ean Ankaran izango da, Bilkent Symphony Orchestra-ren Auditoriumean. Varsovian eman zen ezagutzera hain zuzen ere 2016an sari banaketa ekitaldia eta ondorengo gala-kontzertua Donostian izango zirela, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eskutik eta Donostia 2016 Europar Kultur Hiriburutzaren baitan.

Remy Franck, ICMA Sarien presidentearen aurkezpenaren transkripzioa

Donostiara lehenengoz etorri nintzenean, 2012an, hiriaren edertasunak, bere arkitekturak, hondartzak, Alde Zaharrak ez ezik bere indar kulturalak ere liluratu ninduen. Eta Donostia 2016an Europako Kultur Hiriburua izango zela jakin nuenean plan bat garatu nuen berehala nire buruan, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta Donostia 2016ren antolakuntza batzordearen laguntzaz antolatu dugun ICMA sarien gau-jaialdian gauzatu dena alegia.

Gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu erakunde bietako arduradunei, ICMA sarien banaketa-ekitaldia eta Gala-kontzertua Kurasaalean antolatzeko eskaini diguten laguntzagatik. Sinetsita nago apirilaren 1ean Jun Märkl maisuaren zuzendaritzapean eskainiko diguten Gala-kontzertua bikaina izango dela.

Musika-kalitatea osagai lagaezina da Musika Klasikoaren Nazioarteko Sarientzat. 15 audio- eta bideo-ekoizpen saritu eta sari bereziak ere ematen ditugu urtero, munduko musikari bikainenak ondratzeko. ICMA sarien epaimahaiak nazioartekoa da, hori baita mundu osoko musika-arloaren irudi adierazgarria lortzeko aukera bakarra. Epaimahaiak 14 herritartasun ezberdineko musika-kritikariak hartzen ditu, 17 aldizkari (ohiko zein online) eta irratiren ordezkari direnak. Gure xede nagusia da merezi duten publizitatea eskaintzea saritutako musikari bikain guztiei.

Musika klasikoa inoiz baino osasuntsuago eta indartsuago dago egun. Inoiz baino kontzertu gehiago eskaintzen dira munduan zehar, inoiz baino jaialdi gehiago antolatzen dira eta inoiz baino audio- eta bideo-grabazio gehiago argitaratzen dira. Aldiberekotasuna, baina, munduko musika-arloko ezaugarriak nagusienetakoa bilakatu da. Egungo musika klasikoaren arrakasta eskaintzen zaion arreta eta publizitatearen mende dago. Hori da gure egitekoa. Eta musikaz blai bizi den Donostiak aipatua betetzen lagunduko digu.

Sariak

Honako artista hauek ICMA 2016en sarituak izan dira eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera ariko dira, Jun Märkl maisuak zuzenduta, apirilaren 1ean, Donostiako Kursaal Auditoriumean arratsaldeko 20:00etan izango den Gala-Kontzertuan.



BIZITZA OSOKO LORPENARI SARIA Dame Felicity Lott

Dame Felicity Lott oso gaztetatik hasi zen pianoa eta biolina ikasten eta ahots-eskolak hartzen. Frantses eta Latin titulua Londreseko Unibertsitatean lortu eta gero bertako Errege Musika Akademian sartu eta 1973an graduatu zen, Zuzendariaren Saria lortuz. 1975ean Ingalaterrako Opera Nazionalean egin zuen debuta, Pamina gisara, eta hurrengo urtean Henzeren "Wir erreichen den Fluss" operaren Royal Opera Houseko estreinaldian abestu zuen. Urte hartan bertan hasi zuen Glyndebournekin eta munduko opera-areto ospetsuenekin izango zuen harreman oparoa: Viena, Milan, Paris, Munich, Berlin, New York eta Chicago... Operaz aparte, oso gustuko zuen opereta abestea ere. Offenbachen La Belle Hélène eta Gerolsteinen La Grande-Duchesse lanen bere interpretazioek entzute asko dute oraindik. Kontzertu ugari eskaini ditu halaber, munduko zuzendari eta orkestra ospetsuenekin. Azkenik, bere errezitaldiengatik entzutetsu da ere. Argazkia: Trevor Leighton.



URTEKO ARTISTA Christian Lindberg

Christian Lindberg bere karrera arrakastatsu guztia bakarlari gisara soilik garatu duen lehen tronboi-jolea da apika. 19 urterekin Stockholmeko Errege Operako tronboi-jole nagusia zen baina handik urtebetera alde egin zuen. Ikasketak bukatu ostean bakarlari gisara hasi zen jotzen. Nazioartean ospetsu egin zen handik gutxira eta 100 bat kontzertu eskaintzen ditu egun, mundu osoan zehar. Lehiaketa entzutetsuenen irabazle, ikasgai magistralak ematen ditu erregulariki eta Londreseko Errege Musika Akademiaren Printze Ezkontekide Musikagilea ohorezko titulua dauka. Lindbergek 60 kontzertutik gora estreinatu ditu eta 100 lan inguru moldatu ditu tronboirako. Schnittke, Nyman, Takemitsu, Rouse, Berio eta Pärt bezalako musikagileek berarentzat sortu dute musika. Zuzendari gisara aritu eta musika idatzi du ere. Azkenik, 50 diskotik gora grabatu ditu disko-etxe ezberdinentzat.



URTEKO ARTISTA GAZTEA Pablo Ferrández

XV. Tchaikovsky Nazioarteko Lehiaketan eta Paulo Fundazioaren V. Nazioarteko Txelo Lehiaketan saritua, Pablo Ferrán데zen ezaugarri nagusiena autentikotasuna da eta, kritikarien iritziz, "biolontxelo-jole onenatarikoa da". Bakarlari gisara Mariinsky, San Petersburgoko Filarmonikoa, Stuttgarteko Filarmonikoa, Kremerata Baltica, Helsinkiko Filarmonikoa, Tapiola Sinfonietta, Espainiako Orkestra Nazionala, RTVEko Orkestra edo Maggio Musicale Fiorentino orkestrekin lan egin du, bai eta Valery Gergiev, Yuri Temirkanov, Heinrich Schiff, Dennis Russel Davies, John Storgårds, Gidon Kremer, Ivry Gitlis eta Anne-Sophie Mutter bezalako artista ospetsuekin ere. Ondoko hilabetetan Zubin Mehta, Christoph Eschenbach eta Kremerata Balticarekin batera joko du. Nippon Music Foundation fundazioaren laguntzari esker, Pablo Ferrán데zek "Lord Aylesford" Stradivariusa (1696) jotzen du.



“AURKIKUNTZA” SARIA **Nikolai Song**

Nikolai Song 2002ko abenduaren 16an jaio zen. Aita korearra du; ama, errusiarra. 2005etik aurrera Singaporen bizi izan zen eta musika ikasketak bost urte eta erdirekin hasi zituen. Hiru urte eta erdi geroago txirula, piccoloa eta, azkenik, zeharkako txirula menderatzen zituen. 2015eko ekainean Pariserara joan zen bizitzera, ikasketak osatu ahal izateko. Nikolai txirula eta musika lehiaketa ugaritan saritua izan da eta Liechtensteingo Nazioarteko Musika Akademiak diruz laguntzen dio. Pascale Feuvrierekin ikasten du egun, Rueil-Malmaisoneko (Frantzia) Herrialde Kontserbatorioan.



URTEKO DISKO ETXEA **Javier Perianes, Harmonia Mundi-ren ordezkari**

Javier Perianes “gustu bikain eta dotoreko piano-jolea da, ukimen beroaren dohaina duena” (The Telegraph). Bere karrera entzutetsuaren eskutik kontinente guztiak bisitatu eta munduko areto ospetsuenetan jo du: Carnegie Hall, Barbican, Royal Festival eta Wigmore Hall, Zelai Elisioetako Antzokia, Vienako Musikverein, Amsterdamgo Concertgebouw eta Tokioko Suntory Hall. 2015/16 denboraldian Viena eta Chicagoko orkestra filarmonikoekin, Bostongo Sinfonikoarekin, Yomiuri Nippon Sinfonikoarekin eta Londreseko Filarmonikoarekin batera joko du. Eta hilabeteko iraupeneko bira egingo du Australia, Zeelanda Berria eta Singaporeko orkestra ezberdinekin. Perianesek Harmoni Mundirentzat grabatzen du soilik. Quiroga Laukotearekin egin duen azken diskoan Granados eta Turinaren boskoteak lehen aldiz batu dituzte. Argazkia: Josep Molina.



LORPEN BEREZIARI SARIA **David Violi (Palazzetto Bru Zane)**

Nancyn (Frantzia) jaioa, musika ikasketak bere jaioterriko kontserbatorioan hasi zituen David Violik. Ondoren, Lyongo Musika Kontserbatorio Nazionalean ikasi zuen. Nota onenekin graduatu ostean, graduondoko ikasketak egin eta artista egoiliar izan zen Interpretazio-arteen Banff Zentroan (Kanada). Anne Queffélecen eta Aldo Ciccoliniren aholku paregabeak jasotzeko ohorea izan zuen ere. Piano lehiaketa ugaritan saritua (Yamaha musika fundazioa, Grandpiano saria, etab.), Sakai nazioarteko piano lehiaketa irabazi zuen ere. David Violik Japonia, Espainia, Suedia, Alemania, Kanada, Txina, Italia eta Frantziako areto nagusietan jo izan du. Palazzetto Bru Zane musika erromantikoaren zentro frantziarrarekin batera lan egiten du, erreperitorio ezezagunak entzuleen aurrean eskaintzeko xedearekin. Argazkia: Stanislas Alleaume.



ANTZINAKO MUSIKA

Michala Petri eta Mahan Esfahani

Michal Petrik 5 urterekin egin zuen debuta. Bere heziketa formala 11 urterekin hasi zuen Hannoverreko Staatliche Hochschule für Musik und Theater eskolan. Geroztik, munduko kontzertu-areto eta jaialdi ospetsuenetan jo du. Gidon Kremer, Joshua Bell, James Galway, Keith Jarrett, Christopher Hogwood eta Claudio Abbado bezalako musikari handiekin lan egin du. 1992tik Petrik bikotea osatzen du Lars Hannibal gitarra- eta laute-jole daniarrearekin, mundu osoan zehar joaz. 2013an beste bikote bat sortu zuen Mahan Esfahani klabezin-jotzailearekin. Michala Petriren errepertorioa barroko goiztiarretik musika garaikidera doa. 150 lan baino gehiago estreinatu ditu.

Philips eta RCA nazioarteko disko-etxeek kontratupean izan dute 30 urtez baina 2006an bere disko-etxe propioa sortu zuen, OUR Recordings, Lars Hannibalekin batera.

Mahan Esfahani Teheranen sortu zen 1984an eta pianoa bere aitaren eskutik deskubritu zuen. Klabezinaren inguruko interesa nerabezaroan sortu zitzaion. Ikasketak bukatu ostean errezitaldiak eskaini eta bakarlari gisara aritu da ondokoak bezalako aretotan: Zuricheko Tonhalle, Vienako Konzerthaus, Koloniako Philharmonie, Tokioko Sumida Hall, Vancouverreko Chan Zentroa, Washington, DCko Kongresuko Liburutegia eta Londreseko Queen Elizabeth Hall eta Wigmore Hall. Proms jaialdian inoiz eman den lehen klabezin errezitaldia eskaini zuen. Iruzingile erregularra irratian eta telebistan, aldizkari eta argitalpen ezberdinekin kolaboratzen du. Bere nahia da klabezina antzinako musikaren mugetatik haraindi eramatea eta munduko areto eta jaialdi ospetsuenetan aurkeztea. 2014an klabezin irakasle izendatu zuten Guildhall Akademian eta Deutsche Grammophon Artisten Esklusibo bilakatu zen. Argazkia: Soren Solkaer.



MUSIKA GARAIKIDEA

Lukasz Dlugosz

Lucas Dlugosz txirula-jotzaile poloniarak Municheko Hochschule für Musik und Theater eskolan, Pariseko Musika eta Dantza Goi Kontserbatorio Nazionalean eta New Haveneko Yale Unibertsitatean egin ditu ikasketak. Europa, Japonia, Txina eta AEBetan jo du bakarlari gisara. Zubin Mehta, Krzysztof Penderecki, Jacek Kasprzyk, Mariss Jansons, Stanislaw Skrowaczewski, Helmuth Rilling, Jerzy Maksymiuk eta Gabriel Chmura bezalako zuzendari ospetsuekin lan egin du. Krzysztof Pendereckiren Txirularako Kontzertua hainbat aldiz jo du Dlugoszek, musikagilearen aginduetara. 2010eko urtarrilean Londreseko Orkestra Sinfonikoarekin egin zuen debuta eta Michael Colinarekin Txirularako Kontzertua grabatu zuen. Grabazioak egin ditu Polonia, Alemania eta Frantziako irratian ezberdinentzat. Halaber, disko ugari grabatu ditu Sony, Naxos, cpo, Dux eta Fleur De Son disko-etxeentzat. Argazkia: Mariusz Widerynski.

Gala-Kontzertuko egitaraua

I

Antonin Dvorák

Biolontxelo eta orkestrarako kontzertua si minorrean, opus 104, B. 191. I. Allegro [16']

Pablo Ferrández, biolontxelo

Cécile Chaminade

Flauta eta orkestrarako kontzertinoa re maiorrean, opus 107 [8']

Nikolai Song, flauta

Christian Lindberg

The Tale of Kundraan (erabateko estreinaldia) [14'] (argitaratzailea: Schott Music)

Christian Lindberg, tronboia

Krzysztof Penderecki

Flauta eta ganbera-orkestrarako kontzertua. II Allegro con brio – Vivace – Andante recitativo [12']

Lukasz Duglosz, flauta

Jacques Offenbach / Henry Meilhac-Ludovic Halévy

La Périchole. Ah! Quel diner je viens de faire / Je suis un peu grise [3']

La Grande-Duchesse de Gérolstein. Ah, les militaires

Dame Felicity Lott, soprano

II

Arcangelo Corelli

Biolinerako 12. sonata re minorrean, opus 5, "La Follia" (flauta ezti eta klabezinerako moldaketa) [10']

Michala Petri, flauta ezti

Mahan Esfahani, klabezina

Marie Jäell

Piano eta orkestrarako 2. kontzertua. I Allegro [16']

David Violi, piano

Maurice Ravel

Piano eta orkestrarako kontzertua sol maiorrean [23']

I Allegrement

II Adagio Assai

III Presto

Javier Perianes, piano